

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 489/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea José Francisco Antón Idróquilis jauna Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zuzendari-kudeatzaile izendatzeari

Ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eratzen duenak, xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak proposaturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea izendatzea eta kargutik kentzea.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzako gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta. Izendapen edo kargutik kentze horiek erabakian bertan ezartzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak edo, beren-beregi zehaztu ezean, ALHAOn argitaratzen diren egunetik aurrera.

Horregatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. José Francisco Antón Idróquilis Gizarte Ongizaterako Erakunde Autonomoaren zuzendari-kudeatzaile izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko uztailaren 23tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA